

Ingurumen Buletina

Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistei buruzko monografikoa

- ***Manifestua***
- ***Klimaren krisia eta sindikatuen eginkizuna (Txiki Muñoz).***
- ***Eric Toussainten interbentzioa:***
- ***Jon Palaisen interbentzioa:***
- ***Elizabeth Peredoren interbentzioa***

INGURUMEN BULETINA 37. ZENBAKIA

ELAko Ingurumen Buletinaren iraileko edizioan, beste gaien artean, Topaketa Ekosozialistei buruz hitz egin genuen. Honetan, monografiko bat garatuko dugu topaketei buruz, gaia pixka bat gehiago analizatzeko. Analisia horrela egingo dugu: Lehenik eta behin, antolatzaileen artean (gizarte mugimendu, alderdi politiko eta sindikatuek, ELA barne) adostutako manifestuari buruz hitz egin. Bigarrenik, Txiki Muñozek, idazkari nagusiak, egindako hitzaldia berreskuratu eta azkenik, beste hizlari nabarmenen hitzak gogoratu, Eric Toussaint, Jon Palais eta Elizabeth Peredokenak hain zuzen ere.

- **Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialisten azken manifestua:**

<http://alterecosoc.org/?lang=eu>

Irizten dugu

Gaur egun pairatzen ari garen emergentzia ekologiko eta larrialdi sozialeko egoera honen arduraduntzat kapitalismoa hartzen dugu. Sistema horri, komeni ez zaiona edo bere posizio nagusia kolokan jartzen duen guztiari entzungor egiten duelako.

Adibidez, bizi dagoen espezie bat garen heinean menpeko harremanak dauzkagu gure artean (gurasoak umeekin, seme-alabak gurasoekin zahartzen direnean,...) Horiek kapitalismoaren ikuspuntutik ez dira existitzen, kapitalismoak harreman guzti horiei ez ikusiarena egiten baitie. Zaintza eta ugalketarekin harreman dauzkan aktibitate guztiak alde batera uzten ditu, naturalak diren beste kontuekin egiten duen bezala: fotosintesi edo uraren zikloarekin, besteak beste. Hutsegite honen arrazoia kapitalismoak aktibitate horiei ezin diela ekonomiko baliorik egotzi da. Horregatik, dauzkaten balio guztia kentzen zaie pribatu arlora erbesteratuz, non gizarteak inoiz emango die daukaten balioa eta non inoiz izango dira positibo edo beharrezko balira bezala ikusiko, gizarte honek kapitalismo balore guztiak barneratuta baititu.

Kapitalista gizarteetan indarrean dagoen ekoizpen eta kontsumo ereduak mugarik gabeko hazkunde batean datza, eredu horrek ez ditu planetaren muga biofisikoak kontuan hartzen eta ondorio larri asko ditu: baliabide naturalak agorpena (ur edangarriaren eskasia, petrolio merkearen aroaren amaiera berehalakoa, minerale estrategikoen eskasia,

arrantza-lekuen kolapsoa, basoak soiltzea...), ekosistemen degradazioa (bioaniztasunaren galera azeleratua, zoru eta erreserba hidrikoen kutsadura, ekosistemek eskaintako zerbitzuen degradazio edo gain-ustiaketa...) eta aurrekaririk ez duen natur oreken aldaketa-kaltetzea. Hori guzti hori laburbildu dezakegu bi hitzekin: aldaketa klimatikoa.

Sistema honek legitimotzat jotzeko erabiltzen duen iturrien artean 2016ko Pariseko Goi Bilera dago. Izan ere, diskurtso ofizialek kontrakoa esan arren, ez da gai izan modu iraunkor eta azkarrean klima aldaketaren ondorio suntsitzaileei aurre egiteko bidea adosteko.

Gainera, eta zehazki kapitalismoaren fase neoliberal honetan, indarrean dagoen ekoizpen eta kontsumo ereduak oso injustua eta desorekatua den jendarte globala sortu du. Gutxi batzuen gainkontsumoa, xahuketa eta aberasteak gehiengoaren eskasia eta pobrezian dute jatorri, eta baitan denboraren konfiskazioan ere, jendarte patriarkaletan, nagusiki emakumeek erreproduktzio soziala eta ongizatearen eguneroko kudeaketara bideratzen

dituztenak. Hori guzti hori hitz batekin laburbildu daiteke: austerizazioa. Gauden ekologiko urgentzia eta larrialdi sozialaren egoera honetatik argi azaldu daiteke zein garrantzitsua den klimatika, gizarte, sindikal eta feminismoaren borroken bateratzea

Planetaren muga biofisikoen kontrako talka honek eta eskubide laboral eta sozialetan emandako itzelezko atzerakada injustizia sozial handikoa, euren herritarren eskubideen defentsa euren buruak gobernatzeko herriek duten erabakitze eskubidea ukatuz demokrazia gutxiagorekin eta desinformazioarekin, soilik inposa daiteke.

Miloi pertsonak pairatzen duten gosea, ingurumen arazoak eta gatazka armatuen kausa arrazoi estrukturaletan bila daitezke.

Natura eta gizateria berarekin berradiskidetu egongo den etorkizunak ikuspegi aldaketa errotikoa exijitzen du, aldaketa erradikala ekoiztu eta kontsumitzeko moduetan, pertsona guztion oinarrizko beharrianak bizitzaren erdigunean jarriko dutenak, demokratikoki zehaztuak eta planetaren muga biofisikoen arabera.

Hain kaltegarri diren aipatutako kontsumo

ereduen alternatiba bat eraikitzeko askatzaile agenda guztiek parte hartu behar dute (sindikalismoa, feminismoa, ekologismoa, indigenen mugimendua eta baserritarrena), horretarako hezkuntza gure oinarria izan behar da.

Ekoizpen ereduari buruzko hitzaldian Mikel Novalek esan zuenez, trantsizio prozesua seguru gertatuko dela, jokoan dagoena aldaketaren orientazioa izanez: Edo planeta eta gizartearen interesak lehenesten dituen aukera bat bultzatzen da edo planetaren biofisiko mugek eramango gaituzte eszenatoki batera non berdintasun eza eta gutxiengo baten aberastasuna izango dira nagusi.

Hitz egiten ari garen ahalduntze horrek beste aurpegi bat dauka. Non baliabide naturalen eta komuneko ondareen kontrola eta kudeaketa, publikoa den banketxearen berreskuratze eta zor ilegítimoaren salaketa beharrezkoak dira trantsizio horiei aurre egin ahal izateko.

Azkenik, duintasun eta autonomia den bizitzaren baldintzak bermatzea beharrezkoa da, eta horretarako era serio batean

aberastasunaren, eta ugalketa eta ekoizpenaren lanaren banaketa aboratu behar da. Lanaren kontzeptua ere, birplanteatu behar da, gizartearentzat beharrezkoak diren lanak erdian jarri eta botere publikoen laguntzaz.

Adierazten dugu:

1. Natura eta gizateria berarekin berradiskidetu egongo den etorkizunak IKUSPEGI ALDAKETA ERROTIKOA exijitzen du, aldaketa erradikala ekoiztu eta kontsumitzeko moduetan, pertsona guztion oinarrizko beharrezkoak bizitzaren erdigunean jarriko dutenak, demokratikoki zehaztuak eta planetaren muga biofisikoen arabera.
2. Horregatik, konponbidea ezin daiteke KAPITALISMOA izan, BERDEZ mozorrotuta egon arren, kontsumo eredu berdina eta egungo egoerara ekarri gaituzten egitura ekonomiko eta sozialen eredu berdina errepuzitzen baldin badu. Beharrezkoa da ekoizpen bitarteko jabetza pribatua oinarritutako

ekoizpen eredu kapitalista aldatzea. Azken finena, galdera funtsezkoak dira zer ekoiztu, zertarako eta norentzat, nortzuk hartzen duten parte erabakiak eta nola ekoiztu.

3. Bizitzaren aurka sistema kapitalistak egindako ofentsibaren aurrean, ezinbesteko irizten diogu alternatiba eraikitzea. Honetan, agenda askatzaile guztiek parte hartu beharko lukete, berdintasunean (feminismoa, sindicalismoa, mugimendu indigena eta nekazaria, ekologismoa, etab). Hori dela eta, subjektu askatzaileen arteko eztabaida indartzea beharrezkoa da, guztia ikuspegi internazionalistarekin eta lurraldeen gaineko ikuspegi integral batetik (gorputzak, memoria, jakintzak, ondasun komunak, etab. Barneratuz).

4. Nahi zein ez, ekonomiaren esfera materialaren deshazkundera eramango gaituzten trantsizio ekosozialen prozesura goaz. Ulertzen dugu trantsizio ekonomikoek (eredu produktiboa eta energetikoa),

sozialak (zaintzaren antolaketa soziala), kulturalak (hezkuntza), legislatiboak eta lurralde mailakoak (trantsizioan dauden udalerrriak), sozialki justuak izan behar dutela pertsonen eta komunitatearen zerbitzura, ingurumen aldetik orekatuak eta demokratikoki erabakiak, bestela, gero eta pertsona gutxiagok (botere handiek) euren egungo bizitza-estiloarekin jarraitu ahal izan dezaten, beharrezkoa da gero eta jende gehiago biziraupen duina bermatuko dien gutxieneko materialetara ez iristea.

5. Ezinbestekoa da pertsona guztiontzat bizi baldintza duin eta autonomoak bermatzea.

6. Horregatik, urjentzia ekologikoari erantzuteko gai izango diren trantsizio batzuen alde egiten dugu, larrialdi sozialek sortutako arazoei ere erantzungo dietenak. Horretarako, ezinbestekoa ikusten dugu beti elkarrekin ibili ez diren bi esparru hauen arteko kontrastea eta lankidetzat. III Topaketa Ekosozialista

hauetako helburu nagusietakoa izan da esparru biei elkarrekin egiteko espazio zabal eta anitza. Sindikatuen protagonismoak garrantzia handia izan du honetan.

7. Hazkunde mugagabearen mito edo planetaren mugekiko talkak kontuan hartzen ez dituen ilusio neokeynesianoen aurrean, BANAKETARI serio heltzen bazaio soilik egin ahal izango da bi esparruon topaketa, lan produktibo eta erreproduktiboari.

8. Banaketa honek lanaren beraren birplanteamendu batek lagundua etorri behar du, horrela beharrezko diren lan guztiak erdigunean jarriz gaur egun indarrean dagoen pentsamenduaren aurrean, produkzioaren izaera kontuan ez duena ekonomikoki errentagarria den bitartean. Lana esfera merkantilean soldataren truke egiten dena baino ez da egungo ereduaren arabera, jendarte-erreprodukzioaren lotutako lan erraldoia izkutatuz.

9. Sozialki beharrezkoak diren sektore sozialak bultzatu behar dituzte botere publikoek, eraikinen birgaitze energetikoari zein energia berriztagarriei eskainitakoak, garraio publikoei, agroekologiari, zaintzari eta aisiari lotutako zerbitzu komunitarioei, osasun zein hezkuntzari. Energia eta materiale gutxi kontsumitzen duten sektoreak, beste alde batetik, eskulanean intentsiboak direnak eta horregatik, trantsizio ekosozialetan murriztu edo desagertu diren sektore ekonomikoetako enpleguen galera ekidiezina konpentsatzeko lagungarriak izango dira.

10. Trantsizio justu eta iraunkor hauek gerta daitezen, ezinbestekoa da gure jendarteak ikuspegi feministaz blaitzea. Emakumeen berdintasunerako eskubidea esparru guztietara zabaltzeko gai izango dena, zapalketa patriarkarra eta honek hauen kontra sortzen duen indarkeriarekin amaituz; eta herritarren boteretzea sustatu (demokrazia eta burujabetza) botereguneak hartu eta euretatik

herritarren gehiengoaren nahiak bahitzen dituzten elite pilotzaile eta ase-ezinen aurrean. Horregatik, komunitateek eragiten dieten gaien inguruan erabakitzeke eskubidea, politika zein ekonomiaren inguruan. Dituen kontraesan guztiekin, gure ustez bide hori hobeto egokitutako komunitate horietako pertsonen oinarrizko beharrietara eta ingurumenarekiko harreman orekatura merkatu itsua edo teknokraten diktaduraren bidea baino.

11. Boteretzeko hau adierazi egin behar da baliabide natural eta ondasun komunen kudeaketa kontrol komunitario eta kolektiboan (sare elektrikoaren bermunizipalizazioa), trantsizio hauei ekiteko ezinbestekoa izango den banka publikoaren berreskurapenean eta legez kanpoko zorraren salaketa, austerizidiorako aitzakia.

12. Hezkuntza izan behar da trantsizio ekosozial hauetako oinarrizko zutabe bat. Hezkuntza

paidea bezala: bizitzan zeharreko autoeraikuntza kolektibo eta pertsonala, izaki ekomenpeko eta interdependiente garen neurrian. Hezkuntza neoliberalaren ikuspegi instrumentala baztertuko duena eta kooperazioa jarriko duena lehiaketaren ordeztu, lankidetzaren indibidualismoaren ordeztu, prozesuak emaitzen ordeztu... Sustenga ezina den kulturaren eduki eta praktika erreproduktiboak aldatzen lagunduko duena eta kultura hau astinduko duten galderak egin geure buruei, eskola instituzio eraldatzaile bihurtuz erreproduktorea izan beharrean.

Gure konpromisoak:

1. Munduan zehar kontzientzia ekosozialista eta feminista zabaltzea eta nazioarteko sare ekosozialistaren sarea bultzatzea. Emergentsia ekologikoa eta larrialdi sozialaren, bereziki sindikalaren, esparruen arteko harremana eta lankidetzaren.
2. Gobernu instituzioetara trantsizio ekosozial beharrezkoak erraztuko dituzten lege proposamenak eraman.

Hauek, testu konstituzionaletan eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak babestuko dituztenak, gure ondasun komunak babestuz eta euren kudeaketa eta gozamenerako sarbide berdina bermatuko dute.

3. Ingurumen kalteen kontrako borroketan parte hartu, bultzatu edo zabaldu, bereziki industria fosilaren inbertsio proiektu handien kontra, eta baliabide naturalen eta ondasun komunen pribatizazioaren kontra.

4. Ekonomia demokratiko, ekitatibo eta iraunkor; kontsumo bidezko eta arduratsu, berdintasunean eta elkar-laguntzan oinarritutako jendarte harremanak sustatuko dituen cultura alternatibo baten hastapenak gaurdanik eraikitzea bilatzen duten esperientzia guztiak bultzatu.

- **Klimaren krisia eta sindikatuen eginkizuna (Txiki Muñoz, ELAko Idazkari Nagusia):**
<http://www.mrafundazioa.eus/eu/artikuluak/nazioarteko-iii-topaketa-ekosozialistak-bilbon-irailaren-23tik-25era>

ELAk asko ikasi du klima-aldaketaren inguruan militatzen ari diren beste taldeengandik. Ikasketa hori lagungarria da geure trantsizioa egiteko. Izan ere, sindikalismoak ere gai honekiko trantsizio bati ekin behar dio, klima-aldaketa gure kezken erdigunean koka dadin.

Klima-aldaketa errealitate bat da. Jon Palaisek dioen bezala, borroka hori ez dugu hurrengo belaunaldien mesedetan egin behar, gaur egungoen mesedetan baizik. Gero eta nabarmenagoa bilakatuko den gaur egungo arazo bat da. Adibidez, joan den abuztua duela 137 urtetik hona, tenperaturak erregistratzen direnetik, ezagutu den hilabeterik beroena izan da.

Parisen izan zen COP 21 goi-bilerak, gobernuen propaganda gorabehera, ez du helburu loteslerik finkatu. Gobernuen esku utzi du erabakia, borondatezko helburuak ezar ditzaten. Bada, iragarri diren konpromisoekin batez besteko tenperaturak COP21ean finkatutako helburuak aise gaindituko ditu. Behingoz, agendan gobernu guztiek honi lehentasun posizio bat ematea behar dugu, eta hori bakarrik lortzen da helburu lotesleekin, eta zigorrekin, helburu

horiek betetzen ez badira.

Zientzilari guztiek ondorioztatu dute aldaketak edonola ere gertatuko direla. Eztabaida da nola biziko ditugun. Ez dago zalantzarik: bizitzeko eta lan egiteko gure era zeharo aldatuko da, zerbait egin zein ez. Okerrena, ordea -ondorio hau ere behin betikoa da- ezer ez egitea da. Horregatik, gure apustua langileak babesten dituen trantsizio ordenatua da, eta aldi berean, lan duina eta iraunkorra sortzea.

Trantsizio hori planifikatu beharra dago, baina kapitalismoak ez du hori nahi. Kapitalismoak agerian utzi du bere neurritz kanpoko irrikarekin edozer suntsitzeko gauza dela; baita planeta ere, aukera emanez gero. Kapitalismoaren eta berarentzat lanean ari diren gobernuen kezka bakarra etekin-tasa da.

Produkzio, ugaltze, banaketa eta kontsumo eredu aldatzea ezinbestekoa da. Jendarteredu berri bat, zentzu zabalean. Eta azaldu beharra dago interes kontrajarrien arteko lehia bat dagoela oinarrian, botere-borroka bat alegia: Kapitala metatzea vs bizimodu duina. Kapitalismoak beti antolatuko ditu

politikak zeharo ez aldatzeko ematen dituen arrazoi edo aitzakiak. Hala da: borroka bera dugu. Klase-borroka da, eta honi klima-aldaketaren aurkako borroka txertatu behar diogu.

Gure erronka da aldaketarako botere soziala eraikitzea, aldaketa bidezko norabidean joan dadin: justizia klimatikoa eta justizia soziala. Sistema aldatzea, klima alda ez dadin. Hau klase-borroka da. Orain erabaki behar da baliabide urriak -ura, energia, lur emankorra- lortzeko guda bortitza izango ote den, azken orduko neurri desesperatuekin eta giza- eskubideak eta gizarte-babesa alde batera utzita, ala kontrara, trantsizio ordenatu eta justua, egungo langileak errespetatu eta enplegu berri duin eta iraunkorra sortuko duena.

Erronka hau mugimendu sindikalari zuzentzen zaio. Borroka sozial honetan gure bizitza dago jokoan. Helburu horretarako sindikatuok zaharberritu egin behar gara, berraktibatu eta gure ekintzari norabide berria eman.

ELAREN “ENPLEGU BERDEEN” PROPOSAMENA: 106.400 lanpostu. ELAk egindako ikerketan batik bat jendarteak

behar dituen eta ingurumenaren ikuspuntutik iraunkorrak diren jarduerak aztertu ditugu. Begibistakoa da trantsizio honetan jarduera batzuk asko murriztu beharko direla, eta erabaki horiek enpleguan eragina izango dutela. Hor kokatzen dugu trantsizio justuaren kontzeptua eta sindikatuak egindako ikerketa, trantsizioa sustatzeko sektore iraunkorretan, egungo eredu produktiboari norabide berri bat emate aldera: etorkizunean energia urria izango da, eta klima-aldaketa nagusi.

Ezinbestekoa da herri-botereen inplikazioa eta ekintza. Exijitu egin behar zaie aldaketak eragingo dituen marko juridiko egokia, eurei zuzenduaz gure proposamen eta mobilizazioak. Aldaketak tokiko eta nazioarteko mobilizazioaren fruitu izango dira; parte hartzezko planifikazio bat galdegiten dugu.

Gizarte-babesa finantzatu behar da -trantsizioa bidezkoa izan behar da-; horretarako ezinbestekoa da erreforma fiskala. Esaterako, Hego Euskal Herrian Europako batez besteko presio fiskalarekiko diferentziala 7.800 milioi eurokoa da.

Sektore eta enpleguak zehaztu eta kuantifikatu ditugu:

1. Eraikinen birgaitzea. Urtean EAEn 20.000 eta Nafarroan 4.000 etxebizitza birgaituz gero 18.000 eta 3.500 enplegu berri sortuko lirateke, hurrenez hurren.
2. Energia sektorea, %100eraino energia berriztagarriak eta fracking gabekoak iritsiz gero 20.000 eta 6.300 lanpostu, hurrenez hurren.
3. Mugikortasuna. Petrolioarekiko eta kotxe pribatuarekiko menpekotasuna gutxitu, AHTren moduko megaegiturak alde batera utzita (hau garestia da, ez du merkantziarik garraiatzen eta pertsona gehienek garraioa ez du konpontzen). 2.000 eta 500 enplegu.
4. Hondakinak. Murrizteaz gainera bilketa selektiboa egin behar da: 7.000 eta 900 lanpostu.
5. Agroekologia, arrantza eta basoen kudeaketa iraunkorra. Sektoreok globalizazioak itota daude. Ekoizpen ekologikoa... Nezararitzako produkzioa berlokalizatu behar da, zirkuitu laburretan merkaturatuaz.

Gaur nekazaritzako produktuen %5
besterik ez da tokikoa.

6. Industria. Diseinua, produktu
iraunkorragoak, birziklajea...
7. Uraren kultura berria. Ura aurreztu
eta modu arrazionalen kudeatu...
8. Berlokalizazioa, zerbitzu publikoak
eta lanaldiaren murrizketa. Saltoki
handien ordeztu denda txikiak sustatu,
eta kalitatezko zerbitzu publikoetan
inbertitu (hezkuntza, osasungintza,
berdintasuna, menpekotasuna,
gizarte-zerbitzuak). Halaber, 35
orduko lanaldia ezartzea.

Ezin amaitu ALTERNATIBA **sarean lan egiteko
izan zen esperientzia** aipatu gabe. Guztiok
ikusi ahal izan genuen gure bizitzaren
onerako produkzio eta kontsumo era eta
moduak badirela. Lan horri eutsi egin behar
zaio. Gainera, **Karta Soziala** ere hor dugu,
arazo eta alternatibak jendarteratzeko tresna
egokia.

- **Eric Toussainten interbentzioa:**
<http://www.cadtm.org/>

Eric Toussaint zor bidegabea indargabetzeko
batzordearen (CADTM) bozeramailea da.

Topaketan eman zuen hitzaldia argi eta
zuzena izan zen, 2015ko Greziako
kapitulazioaren eta austeritate politiken
aurkako B Plan bat aurkeztari buruz. Ericek
honako hamar neurri hauek aurkeztu zituen:

1. Europako Batzordeari
desobeditzearen beharra, oreka
fiskalari uko eginez, eta hori dena
egingo dela iragarritz.
2. Mobilizaziora deitzeko hitza eman.
3. Herritarren parte hartzearekin
zorraren auditoretza egitera
konprometitu, eta, aldi berean,
zorraren ordainketak etetera pasatu.
Austeritate neurriak baztertu eta
horren ondorioz kaltetuta izandako
jendea babesten duten legeak onartu.
4. Kapital-mugimenduen kontrola ezarri.
5. Bankuen sektorea sozializatzea. Banku
pribatuak sektore publikora pasa eta
zerbitzu publikoen irizpideak bete,
gizarte kontrolpean egonez,
biztanleen interesak zerbitzatzeko.
6. Bihurgarria ez den moneta bat
sortzea, herrialde barruan egiten
diren trukeerako. Honek partzialki
ahalbidetuko luke Europako Banku
Zentralaren diktaduratik eta

austeritate politiketarik atsedean hartzea, diru-erreforma birbanatzaile baten bidez.

7. Errotik berritzea zerga sistema. Kendu BEZa oinarritzko ondasun eta zerbitzuetatik, eta luxuzko produktuena handitu. Errenta altuak dauzkan jendeari zerga gehiago ordainarazi.
8. Hiritarren kontrolpean dauden zerbitzu publikoen despribatizazioa eta luzapena.
9. Lan denbora murriztea, soldata berdinarekin.
10. Prozesu eratzailera ireki, Batzar Konstituziogile bat deituz.

Laburbilduz, hartzekodunei aurre egiteko prest dauden indar politikoen beharra adierazi zuen, eta haiei desobeditzea, beharrezkoa bada.

Honekin koherente den programa batekin hauteskundeak irabazten badira, boterean dagoen alderdiaren politika ausarta eta konprometituta izan behar da. Honen arabera jokatu ahal izateko, aurreko guztia hutsala izango balitz bezala geratu gabe, Greziaren kasuan gertatu zen bezala.

- **Jon Palaisen interbentzioa:**

<https://bizimugi.eu/eu/kategoria/biz-i-inplikatz-en-da/iparralde-hegoalde;>

Jon Palaisek bere hitzaldian Cop21ari leporatu zion klima aldaketari aurre egiteko neurri eraginkor gabeko akordio bat izatea.

Hala eta guztiz ere, Estatuon jarrera nahiko pobrea izan arren, badira aldatu diren zenbait gauzak Pariseko akordioa dela medio. Zientzialariek aho batez egindako oharrei esker orain norabide egoki bat daukagu gure borroka zuzentzeko. Norabide hori arazoa aitortzea eta konpromisoei garrantzia ematea baino ez da.

Bestalde, klima aldaketari buruz eta dakartzan ondorio tragikoei buruz abisatu zuen, jende gehienak ez duelako ulertzen arazo honen benetako neurria.

Zer egin dezakegu gobernuek/Estatuek egin beharrezkoa ez badute egiten? Diferentzia egin behar dugu. Klimaren belaunaldia gara, biraketa ekologiko eta soziala egingo duena. Biraketa hori markatzeko bi aukera daude: alternatibena eta erresistentzia ekintzena.

Aukera jasangarriak aurkitzean datza, arlo

guztiak ukitzen dituena: nekazaritzatik garraiora, energia ere barne dela. Eta hori guztia, bai justizia sozial, bai ingurumeneko ikuspegi batetik. Jakinaren gainean egonda posible dela gutxiagorekin bizitzea eta beste balore batzuen inguruan antolatzea zein garrantzitsua den.

Bestalde, Jonen ikuspuntutik, erresistentziarako aukera, sistema kapitalistari bere bidea jarraitzen ez uztea da, logika estraktibistaren aurka borrokatzea. Bide erradikal eta ez bortitz baten bidez, hau da, desobedientzia zibila. Edozein kasutan erdigunean jarriaz borroka sozial eta klima borroka mugimendu desberdinen arteko topaketa batean.

- **Elizabeth Peredoren interbentzioa:**
<https://trenzandoilusiones.wordpress.com/>

Elizabeth Peredok Latinoamerikako ikuspuntua ekarri zuen Topaketara,

Boliviakoa, hain zuzen ere. Bere helburu nagusia ezker koherente bat zein beharrezkoa den seinalatzea izan zen, ezkerrek ekologismoaren eta beste gizarte-mugimenduen ikurrak bereak egin behar baititu.

Peredok esan zuen Bolivian berrogei urtez eskuineko gobernu bat edukiz ondoren, ezkerrek ez zuela politika iraunkorretarako aldaketa egin, eredu produktibo eta ekonomiko estraktibistari jarraipena eman baitzion.

“Bizitza on baterako” helburuen alde benetako apusturik egin gabe, helburu horiek ez dira gauzatzen. Horrek esan nahi du ezkerrek oraindik ez duela ekologia, feminismo, gizarte eta demokraziarekiko harremana konpondu.